



STEE-EILAS EZ DA MAIATZAREN 14an LAKUARA JOANGO

Hezkuntza Sailak HEZIBERRI plana aurkeztu zuenean hezkuntza alorreko sindikatuak baztertu izana salatu genuen, ustez hezkuntza eragileekin batera abian jarri behar zuen prozesutik at utzi baikintuen. Hilabeteak joan, hilabeteak etorri, bere horretan mantendu du Sailak bere jarrera, eta orain, maiatzaren erdian, bilerarako deia jaso dugu.

STEE-EILASek zera uste du:

- Sailak adierazten duen errespetu falta gehiegizkoa da; izan ere, 40.000tik gora langileren zeregina baldintzatuko duen proiektua ez omen dute horien ordezkariekin partekatzeke asmorik.
- Gure ustez, Hezkuntza Saila arduragabekeriak ari da jokatzeko, modu horretan egingo duen prozesuak ez duelako behar adineko legitimitatea izango.
- Sailak jaso dituen ekarpenak ezagutzeko ez dugu bertaratu behar, bide errazagoak eta merkeagoak badira informazioa helarazteko.
- Prozesuaren bilakaera ikusita, ez dugu uste bileraren helburua informazioa ematea denik, baizik eta argazki bat ateratzen saiatzea ahalik eta erakunde gehienekin, eta hori ez zaigu zilegi iruditzen.

Horregatik guztiagatik ez gara bilerara joango; hala ere, gaiak pizten digun interesa berretsi nahi dugu, gure hezkuntza sistemarekin zerikusirik duen guztiak bezalaxe.

Berrero ere adierazi nahi dugu egitasmo tinko eta partekatua behar dugula, eragile guztien jarrera argian eta jokaera zintzoan oinarria izan behar duena, nahi dugun hezkuntza sistema diseinatzeko eta LOMCE legeari aurre egiteko. Orain arte ez dugu holakorik sumatu Sailaren aldetik, aldiz, adierazpen nahasiak eta kontrajarriak ikusten ari gara, LOMCEri aurre egiteko arazoei bizkarra ematen zaie; errefusatzen omen duten legea ekiditeko bere esanetara moldatzen dituzte arauak...

Ezagutzen dugun dokumentazioa dela eta, honako oinarriko ataletan hutsune nabarmenak sumatu ditugu:

- Ez dago hezkuntza eskubidea guztiei bermatzerik ez bada eratzen sistema publiko eta unibertsala, finantziario nahikoarekin. Hau da, ezarritako murrizketak atzera bota behar dira, eta sare publikoa sistema osoaren ardatza izan dadila plan estrategikoa egin behar da.
- Euskararen normalizaziorik ez dago ikasle guztiei ez bazaie horren ezagutza maila nahikoa bermatzen, hizkuntza ereduaren sistema gaindu beharra dago LOMCE indarrean egon edo ez.
- Erlijioen trataera konfesionalak ikastetxeetan diskriminazioa dakar zuzenean, sinesmen eta erlijio guztiek ez baitute trataera bera jasotzen, eta gainera ikasle ororen ordutegia baldintzatzen badute, erabateko gehiegikeria dugu, beraz, desagertu behar da.
- Ikasleen bereizketa norbanakoen garapenerako nahiz kohesio sozialerako kaltegarria dela jakinda, jatorri sozioekonomiko edo kulturalaren arabera, eta bereziki sexuaren arabera ikasleak banatzen dituzten ikastetxeek ezin dute diru publikorik jaso.
- 0-2 urteko umeentzako plaza falta dago, eta, aldi berean, hainbat plaza hutsik geratzen ari da familiek ezin dituztelako kuotak ordaindu. Premiazkoa da doakotasunerantz urratsak ematea, eta, bitartean beken sistema aldatzea diru falta ez dadila izan inor eskolaratzeko oztopo.
- Ikastetxeen kudeaketa demokratikoa ez da sustatuko baldin eta eskuduntza gehiago ematen badizkiegu zuzendariei, irakasleak aukeratzeko, kasu.
- Ikastetxe publikoetako jantokietan bazkaltiarren kopurua jaitsi da bigarren urtez, eta haurren pobrezia tasa gora doa, biztanle guztiena baino 5 puntu gehiagokoa delarik; hezkuntza zerbitzuen finantziarioa igo behar da. Aldi berean, hainbat eragilek bultzatu dugun jantokien kudeaketa aldatzeko aholkuak kontuan hartu eta tokiz tokiko produktuak, merkataritza eta sukaldeak bultzatu behar dugu, sostengarritasuna eta kalitatea hobetze aldera.

Amaitzeko, hezkuntza sistema hobetzeko langileon baldintza onak ezinbestekoak direla gogorazi nahi dugu, eta une honetan, sare pribatuan patronalaren abusuak direla alde batetik, eta sare publikoan hezkuntza sailaren axolagabekeria dela bestetik, langileon egoera kaskartzen ari da.

